

BARBIER JAUNAREN OMENEZKO BATZARREA

Donibane Garazi, 75-XII-21

Euskaltzainburuaren agurrezko hitzak

Donibane Garaziko jaun mera!

Euskaltzaindiko lagunak!

Jaun-andereak, Agur guztioi!

Badu ehun urte Benafarroako hiriburu huntan euskaltzale argi bat sortu zela: Jean Barbier apezka. Haren izenak eta haren distirak bildu gaitu egun hemen, urte muga hori ospatzera. Apez jainkotiar kartsu, euskal teatrogile, musikolari eta olerkari, Euskal Herriko elezahar eta istorioen biltzaile, euskal eskiribatzaile, dena batetan izan zen Barbier jauna. Haren mendeбетetzea aipu bat egin gabe ezin utz zatekeen iragaite-ra. Eta bidezkoa zen oroitzapen hori, aipamen hori, hemen, Garaziko herri huntan, hura sortu zen herrian berean egitea.

Oker ez banaiz, lehenbiziko aldiz egiten du batzarrea Euskaltzaindiak Donibane Garazi-n. Ezin nagoke, beraz, agur bero bat hiriburu huni eta eskualde huni egin gabe. Benafarroako hiriburua dugu Garazi, eta Benafarroako alderdi hau bihotzean daramagu euskaldun guztioi. Nafarroako erresuma zaharraren seigarren merindatea zen, mendiez haraindikoa han bizi garenontzat, hunaindikoa hemengoentzat, baina edozein modutan ere Nafarroako puska hau Euskal Herriko gordailu apartekoa, euskararen gordeleku preziatu eta hautatua bilakatu zaigu. Horregatik, ordu huntan hunarat itzuliak daude euskaltzale askoren bihotzak. Segur naiz eskualde hunek ez diola traizio eginen bere tradizioari, euskararen aldeko izairari, euskarari beti agertu dion atxikimendu beroari. Beraz, Benafarroako hiriburua dugu Garazi. Eta eskualde hunek hainbeste izen, hainbeste oroitzapen dakarkigu euskaldunoi gogora! Bai. Euskaltzaleek ezin dugu ahan-tzi hemendik hedatu zela lehenbiziko irrintzina: "Heuskara, ialgi adi kanpora! Heuskara, ialgi adi plazara! Heuskara, ialgi adi mundura! Heuskara habil mundu guzira! Heuskara! Heuskara! Heuskara, ialgi adi dantzara!"

Bai. Euskarak ezagutu duen lehen poeta landua hemen-
goa zen.

Eta haren irrintzinari kasu eginez, hari ihardetsiz eta segida emanaz ondoko mendeetan hainbeste euskaldun pres-
tu eta ohoragarri lotu dira gure mintzaira zaharra lantzer
eta apaintzera. Hoietarik bat, ez azkena eta ez ttipiena ere,
Barbier jauna.

Haatik, Detxeparek euskararentzat nahi izan zuen garai-
tia hori, zorte dohatsu hori, non da, edo zer bilakatu da? Bete
ote da Detxepareren ametsa? Bistan da ezetz edo erdizka
bakarrik bete dela. Euskal Herria mintzaira zahar baten jabe
da, mintzaira berezi baten jabe. Baina gure aitzinekoek
mendez-mende eta eskutik eskura bezala gaur artio pasatu
diguten mintzaira hau periletan dago, betiko galtzeko perile-
tan.

Eta hain zuzen, euskararen arrangura eta krina aitzineko
mendeetan sentitu zuten jaun hoién itzala behar dugu egun
piztu eta guregana deitu, geure lozorrotik iratzar gaitzan,
mendez-mende heldu den katea gure gizaldi huntan haustera
utz ez dezagun.

Gipuzkoako euskal eskiribatzaile eta poeta handia izan
zen Lizardi. Hain zuzen Barbier baino bi urte geroago hila.
Hark, bada, hara zer zioen: Olerkaria, poeta deritzan gizatxo-
ro hori gabe ez ohi dela herri pizkunderik, bizterik. Hura gabe
herri baten literaturak ez duela bere betea atxemaiten.
Herriaren aldeko izpirituzko gudularien artean olerkaria beti
dela lehen oinean. Gizon lurkoiek irri egingo diote, behar
bada, baina azken finean gerla hoietan berari zor zaizkio
garaitiarik ozenenak. (Ikus "Olermen-irakite", *Itz-lauz*).

Olerkari izan genuen Barbier jauna. Herri batek izpirituz-
ko bere borroketan garailari irten nahi baldin badu, gizon
hoiei behatu beharra daduka. Barbier-en geriza eta distira
lagun dakiola, bada, Euskal Herriari bere kultura propioa
begiratzeko krina huntan!

Gainerakoan, Barbier jaunari buruz ez naiz xehetasune-
tan sartuko, ezen orai segitun entzungo ditugun bi hizlari-
ek hari buruz berria franko emango bait digute.



Haritschelhar jauna, Barbier garaztarraren mendeurren eguneko agurrean